

euskararen
berripapera

1
eb

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA

Doako harpidetza:

Papera: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Donostia kalea, 1 - 01010 VITORIA -GASTEIZ

Tel.: 945 01 69 44 | berripapera@ej-gv.es

Bertsio digitala: www.euskara.euskadi.net/berripapera

SAKONEAN

01|02

BERRIAK

03

MOTZEAN

04



Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskarari gorazarre egiteko, euskararen alde egiteko eta euskaldun guztiak batzeko, egun handia da abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna, eta aurten ere hainbat elkarte, erakunde publiko eta herritarrek ekitaldiak antolatu dituzte euskaldunontzat handia den egun horretarako.

Ospakizun honek badu aurrekaririk; ez da hutsetik hasitakoa. Bidea urratuz doa eta, hala, 1995ean Euskal Herritik kanpora bizi diren euskaldunen Lehen Mundu Biltzarrean eskatutakoa bere eginez, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak elkar hartu eta Euskararen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu zuten.

/02

Euskararen aldeko aitortza berresteko data

IAZ, LEGEBILTZARREAN, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA AHO BATEZ ONARTU ZEN ESTREINAKOZ ETA, BESTEAK BESTE, LEGEBILTZARKIDEEK KONPROMISOA HARTU ZUTEN ELEBITASUNA SENDOTZEKO NEURRI MALGUAK ETA POLITIKA EGOKIAK BULTZATZEKO. AURTEN EUSKO JAURLARITZAREN HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK ABENDUAREN 2AN EKITALDI NAGUSIA EGIN ZUEN DONOSTIAN.



E

uskararen Egunaren aldeko lehen aldarrikapenak antzinakoak dira: Errepublikara garaietan Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaleak Bazkunak bitarte, antolatutako antzerki eta olerti zein bertsolari egunak... Aipatzekoak dira, halaber, Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz Iparraldera alde egindako euskaltzaleek zein bertokoe Euskaltzaleen Biltzarraren babespean egindako lanak. Sasoi horretakoa (1949) da, hain justu, Eusko Ikaskuntzak sortutako Lehenengo Euskararen Eguna.

Horren haritik, iaz, Legebiltzarrean, honako adierazpen instituzionala onartu zuten: "Euskara euskal gizartearen ondarea da, haren historiaren eta kulturaren osagarri ezinbestekoa. Baina, munduko gainerako hizkuntza guztiak bezala, eleaniztasuna ezaugarritzat duen gizadi osoaren ondare ere bada. Hizkuntzen dibertsitatea babestu nahi bada, beharrezkoa da euskara zaindu eta sustatzea".

“

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

"Euskara euskal gizartearen ondarea da, haren historiaren eta kulturaren osagarri ezinbestekoa. Baina, munduko gainerako hizkuntza guztiak bezala, eleaniztasuna ezaugarritzat duen gizadi osoaren ondare ere bada. Hizkuntzen dibertsitatea babestu nahi bada, beharrezkoa da euskara zaindu eta sustatzea".

"Euskarak garapen historia luzea du. Hizkuntzaren aurre-historiaz, aldiz, ezer gutxi dakigu segurtasunez. Baina euskara, batez ere, hizkuntza modernoa dugu, gaurkoa eta gaurkotua, gure egungo gizarteak erabiltzen jarraitu nahi duena eta, gizartearen alor guztietan, gero eta aitortza handiagoa jasotzen ari dena. Euskararen aldeko oinarritzko adostasunetik, 1982ko Normalizazio Legean islatutakotik, itun berri baterantzko orainaldiko saioetara denbora tarte bat dago, ez oso handia, baina euskararen ezagutza eta erabilera aurrerapauso sendo eta ikusgarriak eman dira urteotan". Aurrerago, honela zioen: "Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzean euskararen orainari eta etorkizunari leiho zabal bat irekitzen diegu, eleaniztasunak gure bizikidetzan eta gizarte-kohesioan izan dezakeen eragin onuragarriaz konbentziturik".

Iazko Euskararen Nazioarteko Egunean, hainbat ekitaldi antolatu zen EAEko hiru hiriburuetan: musika-kontzertuak, mintzodromoa, lehiaketak..., eta Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskutik, diru-laguntzak eman zituen horiek

egiteko. Aurtenean ere diru-laguntza jasoko dute udalek eta aldundiek helburu horretarako.

ABENDUAREN 2AN, USTEKABE ATSEGINEZ BETETAKO JAIALDIA

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurtengo ekitaldi nagusia abenduaren 2an egin zuen Donostian. 22:15ean, euskararen aldeko eskupilotako jaialdia jokatu zen Atano III.a pilotalekuan. Lehen mailako neurketan Iparraldeko eta Hegoaldeko pilotariak lehiatu ziren. Egungo buruz buruko txapel-dun Xala lapurtarrak Laskurain gipuzkoarrarekin bikotea osatu zuen Bengoetxea VI.a eta Barriola nafarrei aurre egiteko.

Ez zen ohiko pilota-jaialdia izan, ordea. Ikusleek, esaterako, euskararen aldeko zerbait idatzi behar izan zuten jarri zen taula erraldoi batean: hitz bat, esaldi bat, hausnarketa bat... Gainera, lehen partida amaitu ostean, euskararen aldeko adierazpen bat irakurri zen, eta adierazpenari babes emateko kultura, kirola... eta, finean, euskalgintzako eragileen hamaika ordezkari bildu zen.

HABEk plan estrategikoa egin du

Erakundearen gabeziak eta indarguneak aztertu dira; HABEk, eskaerara eta testuinguru ekonomikora egokitzeaz gain, bere irakaste prozesuak modernizatuko ditu.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) analisi sakona burutu du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Hala, erakundearen ahulezia, indargune, mehatxu nahiz aukerak aztertu, helburu estrategikoak markatu, proposamenak egin eta aurrera begirako ekintza plana diseinatu du.

Egindako plan estrategikoan definitu dituzten helburu estrategikoen arabera, epe ertain eta luzera aurreikusten den eskaerara eta testuinguru ekonomikora etengabe egokitzen joan behar da; egungo eskari malgu eta askotarikoen arabera eskaintza eta irakaste prozesuak modernizatu eta egokitu behar dira; jardueraren ebaluazio sistemaren garapena eta kalitatearen ziurtapena bermatu behar dira; ikaskuntza prozesuetan teknologia berriak ezarri behar dira; eta planifikazioa eta eraginkortasuna irizpide bezala harturik, sistemaren

“

EUSKALTEGIEI ROL AKTIBOAGOA

Euskaltegiei rol aktiboagoa eta zentralagoa emateaz gain, HABEren eta euskaltegien arteko lankidetzaren behar dela uste du Hizkuntza Politikarako sailburuorde Lurdes Auzmendik.

baliabide multzoa optimizatu eta balorea sortzen duten jardueretan zentralatu behar da.

Euskaltegiekin elkarlana funtsezkoa

Hizkuntza Politikarako sailburuorde Lurdes Auzmendiren esanetan, helduen euskalduntzea nahiz alfabetatzea hizkuntzaren normalizaziorako estrategikoak dira, baita HABEren jarduna nahiz HABEk euskaltegiekin batera aurrera daraman elkarlana ere. “Zentzu horretan euskaltegiei rol aktibo eta zentralagoa eman beharko zaie eta HABEren nahiz euskaltegien arteko lankidetzaren behar dela uste du Hizkuntza Politikarako sailburuordearen hitzetan, martxan jarri beharreko aldaketak burutu daitezkeen esperientzia handiko talde profesionala dago HABEren eta euskaltegietan, eta ziur dago errealitate berrietara ondo egokituko direla helduen alfabetatze eta euskalduntzea ahal bezain eraginkorrena izan dadin.

Ekintza plana abiaraztear

HABEko zuzendari Iñaki Uriberen ustez, une honetan HABEren helburu nagusietako bat da plan estrategikoan zehaztutakoa aurrera eramatea, ikerketa soilean eta aurkezpen ponpoxotan gera ez dadin egindako lana: “HABE hainbat gabezia antzeman zirelako jarri genuen martxan plan estrategiko honen diseinua. Orain beraz, gabezia horiei, ahalik eta modu eraginkorrean, konponbidea jartzea dagokigu. Horretarako, baina, HABEko ordezkari nahiz langileen parte-hartzea soilik ez da nahikoa. Hankamotz geratuko ginatke euskaltegi guztien, bertako ordezkarien, irakasleen nahiz ikasleen inplikazioa eta ekarpenik gabe”. Plan estrategikoak dioena betetzea helburu hartuta, Uriberen hitzak aintzat hartuz, datozen hilabeteetan ekintza plan bat martxan jarriko dute euskaltegiekin elkarlanean eta plan hori aurrera eramango dute, hainbat berrikuntza txertatuz.

EUSKARAREN BERRIPAPERA: garai berriak

Begoña Muruaga Laca.

Euskara Sustatzeko zuzendaria.

Euskararen Berripapera agerkariak 1992ko ekainean hasi zuen bere ibilbidea, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren (HPIN) ardurapean. Aldizkaria abian jarri zenean, hauek aipatu ziren helburu nagusi gisa: a) euskalgintzaren berri ematea, batez ere Idazkaritzak sustatutako ekintzena; b) euskararen normalizaziori begira ematen ziren pausoen berri ematea, eta c) aldizkari irakurterraza izatea. Bestalde, aldizkaria euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu eman eta dohainik zabalduko zela iragartzen zen, ahalik eta zabalkunde-

rik handiena eduki zezan. Harrezkero, hilero jaso du harpidedun bakoitzak aldizkaria, berak aukeratutako hizkuntzan.

la hogeita urte hauetan aldizkariak bi aldaketa izan ditu: 2006an eta 2008an. Aldaketa horiek diseinuari eragin zioten batez ere, helburuak, edukiak eta maiztasunak berdin jarraitu zutelako. Baina, tartean, teknologia berrien garapena zela eta, edizio digitala sortu zen. Horrela, zabaldu zen harpidetzaren aukera.

Aldizkari berri honek mantendu egiten ditu hasierako helburu haiek,

eta, era berean, aldaketa sakonak dakartzatza. Irakurterraza izaten jarraituko du, baina, Internetek eta sare sozialek eskaintzen dituzten abantailak aprobetxatuz, aldizkariak sarean duen irudia, zabalkundea eta erreferentziak hobetzea aurreikusten da. Maiztasunari dagokionez ere, aldaketak izango dira: edizio digitala hamabostean behin zabalduko da, eta paperezko bertsioa bi hilabeteetan behin. Baina irakurleekiko hurbiltasunaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu, euskararen inguruko berriak izaten jarrai dezaten.



